

Aretxabaleta,
1992ko urriak 22

Aretxagazeta



Ramon Jausoro,
maratoian txapelduna

• Afizioak:
Atxabaltako
tanborrera

• Atxabaltartua:
Bizkai

• Camila Jauregi



Ez dut putiklubetako argi gorri dardartiez idatziko, ezta anbulantzien argi gorri larrituez ere.

Argi gorriak

Atxabaltan Errota-Barritik Santutxura pasatzeko sufritu behar ditudan semaforuetako argi gorriez arituko naiz.

Nik ez dakit hemen trenbidetik tren pasatzen zenean zenbat denbora beharko zuten atxabaltarrek Landetako inguru hartatik Errotaxera iristeko; baina seguru nago orain baino gehiago ezetz.

Hona apustua. Ezetz ailegatu Bañuetxetik Gaztetxeraino 3 semaforuetatik bat bera ere gorri egon barik.

Eta berdin dio eguneko edo gaueko zein

ordutan den. Ezta igande batetako goizaldeko 4.30etan ere.

Bigarren apustu bat ere bai. Ezetz egon 3 semaforuetako edozeinetan 10 minutu baino luzeago kotxeren batek semaforua gorrian saltatu barik.

Hori bai, seguru nago semaforu horiek horrela ipini dituenak pisuzko arrazoiak izango zituela erabakia hartzeko. Lehen botoia sakatuaz batera norbaitek kalean bestaldera pasatu nahi zuenean bakarrik gorri ipintzen ziren semaforuak, orain kadentzia kons-

tante batetan aldatuz eukitzeko.

Behar bada mundu honetan dena dago berdinu beharra eta txip batez kontrolatu beharra. Seguramente argindar gutxiago gastatzen da honela.

Baina nik gauza bat bakarrik dakit, munizipalek txapela gorria dute. Eta ertzainek ere bai.

Ni, berriz, daltonikoa naiz.

Bigarren apustu bat ere bai. Ezetz egon 3 semaforuetako edozeinetan 10 minutu baino luzeago kotxeren batek semaforua gorrian saltatu barik.

Asier Aranguren
Kazetaria eta ETBko
kirol erreportaria.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabalea Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Goretzi Ayastuy, **Argazkiak:** Josu Lazkano, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabertia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko, herriko zineari buruz?



Fernando Osinaga
(Lanagabetua)

Asko mejoratu da, pelikula askoz hobeak ekartzen dira orain. Hala ere ez dakit jendeak asko erantzuten duen, baina nire ustetan oso ondo dago.

Ni ez nau asko motelatzen jendeak jateak, gurago nuke jango ez balute, baina neri berdin zait.



Jorge Bengoa
(langabetua)

Pelikula onak botatzen dituzte eta noizean behin joaten naiz ikustera. Mejoratuaz doa, zeren Arrasaten botatzen dituztenak laster ekartzen dituzte Atxabaltara eta gainera hemen merkeagoa da.

Zoritzarrez zinea nahiko zikin egoten da eta jendea ez da konturatzen garbi egon behar duen lekua dela.



Ana Martinez
(Etxeko andrea)

Urte osoan egon beharko litzateke zinea ez neguan bakarrik. Bestalde formalidade gehiago beharko litzateke, dena da zarata eta zikinkeria pipak direla eta.

Bestela pelikula aldetik ondo dago. Zinea ondo dago eta pelikula on bat ikustera joan eta dena da zarata.



Mainer Urzelai
(Ikaslea)

Mejoratuaz doa eta pelikula onak daude. Pelikula ikusten zaudela zarata haundia egoten da, baina niri ez zait asko inporta. Jeneralean ondo dago.

KARTAK

ARGIA egutegiak

Orain arte "Erretratoarekin Jolasean" izeneko lehiaketan irabazle izan direnei Everest espedizioko jertsea eman zaie. Badirudi jendeak ez dakiela non hartu behar diren edo norengana zuzendu behar den. Oraindik hemen jertse batzuk geratzen dira banatzeko,

jendea jasotzera agertu ez delako. Beraz, irabazle suertatu zaretenok eta oraindik jertsea jaso bariarik duzuenok pasa zaitzte lehen bait lehen ARETXAGAZETAren bulegotik.

Ez utzi berandurarte, zuek jakingo duzue zeintzuk falta zareten eta

etorriaz bat emango zaitzue. Horiek bukatzen direnean beste erregalu bat banatzen hasiko gara. Erregalu hori ARGIA egutegia izango da bere soporte eta guzti.

Bestalde inork egutegi hori erosi gura badu, laster salgai izango ditugu.

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitzte, zuen karten zai gaude eta.



Munduko gailurretik Atxabaltara

Bianaiok munduko gailurra zapaldu zutenetik, herri osoa zegoen eurak noiz etorriko zain. Azkenean 10ean, zapatuan, eguerdi aldera Sondikara heldu ziren eta arratsaldeko 7etan puntuan Atxabaltara. Heldu orduko txupinazioa bota eta udaltxeruntz abiatu ziren. Ordurako udaletxe ingurua jendez beteta zegoen. Bertan herriaren omenaldi beroa jaso zuten. Gero entrebistak izan ziren, eta hona hemen Felixengandik jasotakoa.

• Osasun aldetik, ze moduz?

• Aurten, igaz ikasitakoaz, hobeto zaindu dugu geure burua eta gainera hobeto preparamur joan gara, neurri hobeak hartu ditugu.

• Puntan eguraldi txarra izan zenuten ezta?

• Igo zuten lehenengo taldeetan sartu ginen eta horrek esfortzu estra bat eskatu zuen. Gero italiarrek, adibidez, 3 egunetan segidan igo zuten eta egunetik egunera azkarrago igoten zuten eta azkeneko egunetan 9etarako tontorrean zeuden.

• Hillary eskaloiariburuz zer esan dezakezu?

• Eskaloia zenbat eta jende gehiagok pasatu hobeto geratzen da. Gure atzetik italiar espedizioa zihoan eta 8 lagunek igo zuten. Hauek azpiegitura txukuna jarri zuten hego tontorretik Hillary pasatu arteko bidean, soka puntak jarri. Guk esfortsu estrak egin behar izan genituen. Guk ez generaman inolako instrumenturik eta eskuekin tiraka igo genuen.

• Jaitsiera zelakoa izan zen?

• Hego tontorreraino problematiko samarra izan zen Hillary eskaloia jaisteko. Nafarrekin batera lau lagun elkartu ginen eta orduan enbo-

teilamentua sortzen da. Gero guk argi geneukan gaba zetorrela, linternak ordubetera geneuzkela eta gutxienez linternetara heldu behar genuela gaba iritsi aurretik. Behin linternetara heldu eta gero lehenbailehen jaitsi ginen behera.

• "ziztizazta iaizta" lemari buruz zer diozu?

• Lehenengo aldiz entzun dut gaur, baina egia esanda halaxe izan da. Lehenengo intentuan urten digu eta ez dugu arazo estrarik izan.

• Datorren urterako proiekturik?

• Buruan proiektu asko daukagu, baina ikusi egin beharko da ze presupuestu dagoen eta horren arabera erabakiko dugu.



JAUREGI

OKINDEGIA

Otalora, 10

Aretxabaleta



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



ARTEGINTZA

Lezama merkatal zentrua, 14



Behiaren erakusketan. Dui izan.

Ganadu lehiaketa

Oñatin, San Migel jaietako egitarauaren barruan, behi lehiaketa izan zen. Bertan, inguruko ganaduzaleak elkartu ziren. Txapelketa horiek lau mailatan banatzen dira:

1-30 hilabeteko bigantxak

2-txahal bat egindako behiak, 30 eta 36 hilabete bitartekoak.

3-3 eta 5 urte bitarteko behiak.

4-5 urtetik gorako behiak.

Artikulu honen bitartez, atxabaltako ganaduzaleen lana azpimarratu gura dugu. Arientza-Etxebarri elkarteak ordezkatzuz, Abasolo

anaiek lehenengo eta bigarren postua lortu zuten, txahal bat egindako behiak, 30 eta 36 hilabete bitarteko kategorian eta baita 5 urtetik gorako behiek.

Horrekin batera honako sari hauek irabazi zituzten:

- Errape onena.

- Habereen kingo ariaz hasitako txahal onena.

Arkarazoko Atxanda Elkarteak ordezkatzuz, Zugazti anaiek, lehenengo eta bigarren postua lortu zuten 30 hilabeteko bigantxekin eta inguruko bi behi esne produzitzaile onenak ordezkatzuz. Lehenengo behiak 9600 litro esne ematen du urtean.

Begirale ikastaroa

Hezkide eskolak antolatutako begirale ikastaroak hasi dira. Bertan Ortazar atsedean taldeko 7 partaidek hartzen dute parte eta beste bi atxabaltarrek ere bai. Ikastaroa Azatlan emango da astebukaerero, zamatuko 9.30etatik domekako 1ak arte. Atxabaltakoez aparte inguruko herrietako beste batzuk ere badabilta: Oñatikoak, Bergarakoak eta Donostikoak ere bai.

Ikastaroak 17 aste bukaerako iraupena izango du eta egonaldia horietaz gain bi lan aurkeztu beharko dituzte partaideek azkenean begirale titulua lortzeko. Badirudi ez dela oso merkea ikastaroa eta ez dutela diru laguntza haundirik jaso Udaletik; beraz, bakoitzak dirua jarri behar izan du.

Bestalde, helburu beretsuko beste ikastaro bat ere egiten dabilta, kasu honetan Gasteizen, bertako atsedean taldeak antolatutakoa. Zapatuero elkartzen dira egun osorako eta gero hilean behin astebukaera oso bat pasatuko dute kanpoan.

- Azaroaren 3tik abenduaren 4erarte argazki ikastaroa izango da Kultur Etxean. Egun hauetan emango da ikastaroa: martitzen, eguen eta eguakotxetan. Prezioa 2000 pztakoa da. Apuntetako Kultur Etxera jo dezakezue. Beharrezkoa da ikastaro horretara argazki makina eroatea.

- Azaroaren 2tik abenduaren 23ra makrame ikastaroa izango da Kultur Etxeko eskulan-gelan. informazio gehiago Kultur Etxean.

- Datorren eguakotxean urriaren 23an, laugarren ostiraldetik aurrera, bezala, zakarrak uzteko dauden puntuetan, gauza handien bilketatik gertatu da.

Oharra:

1992ko urriaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, literatur sorkuntzarako eta euskaraz egindako doktore-tesietarako beka eta laguntza ekonomikoak emotea erabaki da.

Epea urriaren 28an bukatuko da.

Inork horretan interesik balu, Udaletxeko Euskara Zerbitzuan argibideak emango zaizkio.



Haurren eguna

Joan den domekan urriaren 18an haurren eguna izan zen. Egun horretan, aspaldiko partez, eguzkiak urten zuen ospakizun honetan laguntzeko. Badirudi jende askok ez zekiela egun horretan ospatzen zela jai hori, asko egun berean enteratu ziren.

Goizean taldeak etorri ahala elkartuaz joan ziren. Denera 9 talde etorri ziren: Antzuola, Bèrgara, Arrasate eta beste asko, tartean Atxabaltakoak noski.

Goizaldean leku desberdinetan dantzan ibili ziren, taldeka banatuz. Batzuk plazan, beste batzuk Expres aurrean edo Mitarte plazan eta baita konbentu aurrean ere, horrela leku desberdinetan ikusi ahal izan genituen umeak dantzatzen. Eguraldi ona zela eta, jende asko elkartu zen gaztetxok ikusteko.

Bazkaltzeko orduan etxeetara joan ziren gehienak. Baina, urtero bezela, umeak hartzeko jende gutxi apuntatu zela eta, batzuk soziedadetan, monjetan eta Taberna Barrin bazkaldu behar izan zuten. Hori urteroko arazoa da, gero eta jende gutxiagok hartzen ditu umeak bazkaltzeko eta gero beti daude arazoak.

Arratsaldean 5etan hasi ziren plazan dantza egiten. Oraingoan talde guztiak bertan elkartu ziren eta taldeka dantzatu zuten. Ikusle asko egon zen plaza inguruan: ekitaldia bukatu arte. Hori denorik, 6ak eta laurdenetan bukatu zen eta gero talde bakoitza bere herrirantz abiatu zen.

Anekdota moduan, esan daiteke, horietako gazte batzuei bazkal ostean zigarroak eskeini zizkietela eta nahiko

momentu larriak pasatu zituztela. Zer pasatuko ote zitzaizen momentu hartan burutik?

Bestela, denak oso ondo urten zuen, eguraldiak erelagunduzuen. Hasieran inork ez zuen espero horren eguraldi ona egitea eta kiroldegia ere gertu zegoen euria egiten bazuen ere, baina azkenean ez zen horren beharrik izan.

Noski, urteroko arazoa gertatu zen bazkal orduan. Askotan gertatu izan da bi eskatu dutenek hiru edo lau eraman beharra izatea, bestela ba-


zkaldu barik geratuko zirelako.

Aurten ere bazkaltzeko umeak etxeak baino gehiago ziren eta leku desberdinetan banatu behar izan zituzten antolatzaileek.

Datorren urterako gauza bera gertatu ez dadin jendearen aldetik partizipazio haundiago izatea espero da. Bestela helduko da momentu bat jai ospatu ezinik gertatu dena, umeak bazkaltzeko tokirik ez dutelako. Hori denorik beti esaten da, baina oraindik ere berdin jarraitzen du arazoak.



Atxabaltan askotan ikusi dugu Hilario tanborra joten eta hortik datorkio Hilario Tanborrero izena. Nahiz eta Atxabatarra ez izan, 17 urtean ibili da hemen tanborrari ematen, bai txistulariekin eta baita bandan ere. Horretaz aparte pregonero ere ibili izan da, jendeak ondo gogoratuko duen moduan.



Hilario tanborrero

• Noiz hasi zinen tanborra ikasten?

• Mutiko-mutikotatik, gerra ostean segituan hasi nintzen nuere aldetik. Gerra ostean kriau joaten ginen ogibila eta ugazabak siestan zeudela, nik kaldara zaharrak hartu eta jo eta sua ibiltzen nintzen jotzen.

• Benetako tanborra, noiz izan zenuen lehenengo aldiz?

• Guk etxean beti izan dugu benetako tanborra.

Aita eta anaia txistulariak ziren eta. Nik mutikotatik ikasi gura nuen tanborra eta solfeoa, baina aitak ez zidan irakutsi gura.

• Zela hasi zinen Atxabaltan tanborra jotzen?

• Luis Gerrak jotzen zuen orduan, baina gaisotu egin zen eta Demetriok niri esan zidan bandan joteko. Osatu zenean bonboa jotzen zuen berak eta nik tanborra. Bixente Gerra

zegoen tanborrero eta bion artean lana banatu egin genuen. Gero dena nik hartzeko esan zidan eta harrez gero 17 urtean egon naiz.

• Pregoia ere jotzen zenituen, ezta?

• Bai, Arrasatera bitzera joan eta gero ere hona etorten nintzen pregoia esatera. Nire aurretik Donato difuntoak jotzen zuen eta hura gaiotu egin zen eta nahiko larri egon zen. Bera hil zen egunean jo nuen

nik lehenengo pregoia. Nik irakurtzen ondo ez nekien eta jendeak adarra jotzen zidan "edito" edo "eredito" esaten nuelako. Baina nik ahal nuena egiten nuen.

• Zein da sekreto-rik handiena?

• Alde batetik entzumen ona izatea, baina hori baino inportanteagoa ezkerreko eskumuturra ondo manejatzea. Erredobleak eta joteko beharrezkoa da maneju ona eukitzea.

• Hemen inguruan, tanborrero onik?

• Inguruan onena Demetrioren lehengusua,, Legazpiarra dela uste dut.

• Gertatu zaizu xelebrekeriarik?

• Nik atabalak beti ondo zaintzen nituen eta behin bat soltatu eta botea jo eta gero ia bigarren pisoraino igo zen. Lurrera heltzean apurtu eta pareja berri bat erosi behar izan nuen. Hurrengo batean, Andramari 3. batean apurtu egin nuen bat eta gero erre kara bota, horrela pareja desberdinetatik bana geratu zitzaidan.



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA!

Iparragirre, 4
Tfno: 79 21 24
ARETXABALETA

**LASA AGUILERA
AHOLKULARITZA**

Andra Mari Auzunea
Tnoa: 79 29 26

ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

DURANA, 16
Tnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

**MITARTE
GARAI
(JATETXEA)**

ARIENTZAN
Tnoa: 79 17 51

Urriaren 11an Donostiako maratoia korritu zen urtero bezala. Baina Atxabatako herrirendako ordurarteko notzialñurrategi anaiak izan baziren, oraingoan Jausoro izan da. Telebistan ikusi ahal izan genuen Jausoro saltoka azkeneko metroetan metan sartzen. Lehen euskalduna izan zen. Berri hori jakitean beregana eta bere entrena-tzailea den, Azkargortarengana jo dugu zerbait gehiago jakin guran.



Maratoian Euskadiko txapelduna

• **Maratoian espezializatu behar duzu?**

• Nik denetik egiten dut, lehenengo krosa, gero pista eta gero maratoia. Azkeneko maratoi hau 10.a izan da.

• **Zeeragin eukizuen Sabino Padillak zugan?**

• Askok lagundu zidan, batez ere jan asuntuetan. Jan behar ez diren gauzak jaten dira eta horiek kendu eta beste era batekoak jateko agindu zidan: "hidrato de carbono" dutenak batez ere. Entrenamentu mailan ere asko lagundu dit, erritmo aldaketak eta serie desberdinak sartuz.

• **Londreseko maratoian zer gertatu zen?**

• 1go kman oso aguro joan nintzen eta goiko

partea kargatu egin zitzaidan, horrela 40 kmtan erreaz joan nintzen. Gehiegi forzatu nuen hasieran neure gorputza. Horren ondoren masajeen bitartez errekuiperatzea lortu nuen.

• **Zer suposatu dizu Donostiako maratoian 1go euskalduna izateak?**

• Ni ez nintzen irabaztera joan, marka on bat lortzera bai. Nik pantailan marka ikusi nuen eta horretxegatik egin nuen bukaerako saltoa. Baina nik ez nuen espero euskadiko txapelketa irabaztea, ni baino hobekak bazeuden eta: Nobel eta Alfaro adibidez.

• **Noraino helduko zarela uste duzu?**

Ni ez nintzen irabaztera joan, marka ona egitera bai. Azkeneko metroetan marka ikusi eta saltoka hasi nintzen.

• Ez dakit nora heldu naitekeen, norabait helduzeko horretara dedikatuz bizi behar da eta ez nire moduan lana egin eta entrenatu. Ezinezkoa da dena batera eramatea.

• **Ze edade da fondoko batendako topea?**

• 5.000 eta 10.000a 30 edo gehiagorekin ere egin daiteke. Maratoia ere 30 eta 35 bitartean egiten da. Baina 35 urtera heldu egin behar da, eta horretarako lana gin barik entrenatu bakarrik egin behar da. Goi mailako atletak horretara dedikatuz bakarrik bizi dira, lanik egin barik.

• **Zaila ikusten duzu besteen marketara heldzea lana eta atletismoa konpajinatuz?**

• Nik bizitzeko lana egin behar dut eta orduan ahal dudana egiten dut, inolako metarik jarri barik. Baina Londreseko maratoian adibidez espero genuen baino azkarrago joan nintzen eta horrek zerbait esan gura du.

• **Badaukazu ametsik?**

• Atleta guztiek daukaten amets bera daukat: beka bat lortu, lau hilaberako bakarrik bada ere, eta gogor entrenatu markak hobetzeko edo olinpiada batzuetara joateko. Baina inorez da gertu beka emoteko, oso gaxa da.

• **Arineketan egiteko defektorik badaukazu edo kalidadeak gehiago dira?**

• Defektoak asko, bat

estilo txarra izatearena da. Estilo hobea eukitzeko gimnasia asko egin behar da eta nik ez daukat denerako astirik. Beti hoba da estilo onaz arineketan egitea, baina nik uste dut neure kualidade bat erresistentzia asko izatea dela eta horregatik joaten naiz batez ere.

• Zelan hasi zinen arineketan?

• Lehenengo krossa egiten nuen, gero pista eta orain maratoia, baina beste biekin txandakatuz. Gustoren maratoia egiten dut samurrena delako, maratoian hartu eta joan egin behar da, krosean adibidez gimnasia gehiago egin behar da, lokatzetan ibili eta guzti hori ezin da.

• Atxabaltarrak irabazten ez duzunean gogoratzen dira zutaz?

• Batzuk bai, baina ez asko. jendeak futbola dauka buruan sartuta eta beste kiroletaz ez dira arduratzen. Irabazten denean denak gainera etortzen dira, baina aurretik ere hor ibiltzen naiz eta inor ez da gogoratzen. Igaz adibidez zorte txarra izan nuen eta inor ez zen arduratu. Uste dut behean gaudeanean behar dela jendearen laguntasuna, batez ere moral aldetik bultzada bat emateko.

• Zer sakrifizio kostatzen zaizu gehien?

• Lanetik urten eta nekatuta nagoenean ezin izaten naiz ohera joan, entrenatu egin behar dut eta nahiz ta oso nekatuta egon



20 km egin behar ditut. Gabetan ez urtetea eta ez da sakrifizioa niretako.

• Izan duzu idolorik?

• Bai, 10.000 eta 5.000an Salvatore eta maratoian Bordi. hauek dira niretako onenak, beste batzuk ere badaude baina adibidez Salvatorek badauka gauza on bat: estilo ona dauka eta aurpegia ematen du, ez atzean gelditu eta gero esprina bota.

• Maila altuan egoteko zerbait hartu behar dela uste duzu?

• Lehenengo zer hartu jakin behar da. Baina normalean da, ze marka bat jartzten dizute eta hori egitean diru bat irabazten duzu. Hurrengo urtean marka hori ez baduzu egiten dirua ere galdu egingo duzu. Hor mantentzeko zerbait behar da. Orain motibo gehiagorekin hartuko da dirua dagoelako bitarteko. Hori maila altue-

tan gertatzen da, gure mailan ez da oso normala.

• Karrera popularrek zer utzi dute bidean?

• Hori boom bat izan zen, jendea arineketan hasi zen, baina orain inork ez du gura dirua ipini eta gutxi batzuk eroatea.

• Zuk atletismoaz gozatu egiten duzu?

• Lehenengotan hobya zen, baina gero droga bihurtzen da, hori barik ezin gaitzke bizi. Beste batzurendako ohitura da lanetik urten eta txikiteoan ibiltzea; nik berdin, tabernara joan beharrean arineketan egitera joaten naiz. Esan daiteke atletismoaz biziatuta nagoela.

• Betidanik izan duzu laguntza zurekin?

• Ez, hasieran Eskoriatzan bakarrik hasi nintzen eta gero Arrasatera pasatu nintzen, han ere bakarrik. Arrasatera Azkargorta etorri zen nirekin eta ikusi zuen Sabinorekin hobeto ibiliko nintzela eta azkenean ekipo antzeko bat egin genuen.

• Zela ikusten dituzu atzetik datozen mutikoak?

• Euren neurrian denek daukate zer egin, baina kostantzia behar da, ezin zaio entrenatzeari utzi, bestela galdu egiten da. Baina mutiko gehiagok urten dezaten instalazioak behar dira. Hori izanez gero gehiagok egingo lukete takarraran eta zaletu gehiago egongo litzateke. Futbol zelaia ez balego ez legoke futbol zaletasunik.

Mutiko gehiagok atletismoa egin dezaten eta atleta gehiagok urten dezaten, instalazioak falta dira.

Joxe Zubiaur (Bizkai)

Bizkaitik Atxabaltara

- **Non jaio zinen?**
- Zeberion, Bizkaiko herri batean. Hortik datorkit bizkai ezizen hori.
- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**


• 1963an, 28 edo 29 urterekin.

- **Ze arrazoirengatik etorri zinen?**

• Lan bila etorri nintzen. Nonbaiten lana egin beharra zegoen, ogia behar zen ahora eroateko eta. Lehenengo urte askoan Araban egon nintzen laborantzan lanean eta gero handik Mendarora. Mendarotik ostera gasteizera joan nintzen, baina han ez zegoen lanik eta Eskoriaztara etorri nintzen, han hilabete batzuk eginda gero, Atxabaltara eta hemen geratu nintzen.

- **Zein izan zen zure lehenengo etxea?**

• Alde batetik bestera ibili nintzen, etxe batetik bestera. Lehenengo Akilininean izan nintzen, gero Julian Morikonean eta gero Zesteronean. Handik, barriz, residentziara joan nintzen eta orain bertan nago. Patrona guztiak oso onak izan dira, baina



ez oraingoen modukoak.

- **Zeintzuk izan ziren zure lehenengo lagunak?**

• Beste batzuren artean Benito Bengoa zena. Berarekin joan nintzen lehenengo aldiz 3 egunetarako oporretan Lourdesera. Orduan ez nuen inor ezagutzen eta han ezagutu nuen Benito.

- **Ze inpresio egin**

- zizun Atxabaltak orduan?**

• Lan bila etorri eta gustatu egin zitzaidan eta nonbait geratu behar eta hemen geratzea pentsatu nuen.

- **Ze desberdintasun dago zuk ezagututako eta oraingo Atxabaltaren artean?**

• Oraingoa askoz haundiagoa da, orain herri handi bat da. Lehen

ez zeuden horrenbeste etxe.

- **Eta ze desberdintasun dago zure herria eta Atxabaltaren artean?**

• Nire herrian base-riak bakarrik daude eta denak zabaldua. Hemen dena pilatuta dago eta hau askoz alaiagoa da, jende gehiago dabilelako.

- **Zer egin zitzazuin gogorrena?**

• Aterik ate lan bila ibili beharra, baina suertea izan nuen eta oso azkar topatzea suertatu zitzaidan. Ederlanen sartzeko aukera ere izan nuen, baina horretarako ere dirua behar zen eta ezin.

- **Atxabaltako euskara desberdina iruditu zitzazuin?**

• Diferentetxea bai, baina nahiko antzekoak dira hemengo euskara eta bizkaitarra. Mendarokoa askoz gatxagoa egin zitzaidan.

- **Zeure burua Atxabaltartzat daukazu?**

• Bai, beti sentitu naiz Atxabaltar, herri hau oso gustokoa dut eta.



Camila Jauregi : Eski Akuatikoan txapeldun

• Noiz hasi zinen eski akuatikoa egiten?

• 9 urterekin hasi nintzen kurtsilo batzuk egiten Uribarriko urtegiari. Astean 5 egunetan 2 orduko kurtsiloak egiten nituen eta gero igaz euskal federazioetik deitu zidaten.

• Noiz entrenatzen zara?

• Uda garaian entrenatzen naiz. Astean 5 egunetan eta egun bakoitzean 8etatik 2etara. Orain neguan ez dugu entrenamendurik egiten.

• Zela hasi zinen kirol horretan?

• Udan ez nekien zer egin eta egun osoa pisizinan egin beharrean kurtsilo batzutan apuntatzea pentsatu nuen. Gero gustatu egin zitzaidan eta 3 urte jarraian kurtsiloak egiten ibili nintzen.

• Non entrenatzen duzu euskal federazioaz?

• Uribarrin bertan, Euskal Herriko denok hor entrenatzen dugu, club nautiko horretan.

• Zenbat konpetiziotan hartu duzu parte?

• Igazko urtean clubean egiten direnetan

hartu nuen parte eta sozialean 2 disziplinetan irabazi nuen. Aurten ere sozialean hartu dut parte eta euskadiko bigarren geratu nintzen. Gero beste konpetizio batzuk ere izaten dira bertan eta hor ere hartzen dut parte, baina kanpoan egiten nuen lehena izan da irabazi dudana hau. Entrepneñasen izan zen eta infantil mailan urrezko domina lortu nuen.

• Zer suposatu dizu domina horrek?

• Ez nuen espero irabaztea jende ona zegoelako bertan eta poz handia eman dit. gainera ez da asko entrenatzen hasi nintzela federazioarekin eta ez nuen inola ere irabaztea espero.

• Ze asmo dituzu gerorako?

• Euskadiko federazioan jarraitzea eta aurtengo konpetizio berdinetan parte hartzea datorren urtean ere.

• Kirol hori egin gura dutenei zer esango zenieke?

• Samurra eta polita dela. Gainera nik ez dut uste peligr osoa denik beti dagoelako jendea laguntzeko prest.

• Murruxio Mendizale Elkar-teak eta Amilotx Ekologi taldeak urtero bezela Euskadi mailako VI. Argazki eta Diapositiba lehiaketa antolatute. Gaia: Mendia eta Natura arlo guztietan. Epea abenduaren 10ean bukatuko da eta Murruxiora eroan beharko dira.

• 14. zenbakian, Kurtzebarri zankoekin igo zutenetik Patas eta lurgi bakarrik aipatu genituen. Baina beste hiru mutiko ausart ere izan ziren. Barkatu aipatu ez izana.

• Oraindik igeri ikastaroak martxan daukazue. Informazio gehiago Kirol-Etxean, tfnoa: 79 64 61.

MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi, 13 - 1.A
Tnoa: 79 71 55

MIKELOS

LINEA ESTILO

Iparragirre, 3
Tnoa: 79 36 67



GARAGE NORTE, S.L

OPEL AGENTZIA OFIZIALA

Basabe pasealekua - A-13 - Tfnoa: 79 62 65



Santagedan, 1942ko abenduaren 27an

Gure herrian leku guztietatik somatzen den kirolgiroa kontutan hartuta, argazki honek me-rezi izango lukeen izenburua " Gora gaurko eta atzoko kirolariak!" izango litzateke, bada.

Batzuetan, gaur egungo arrakastek, txapligu zaratatzen eta barrez betetako haizeek, pasatutako sasoi izartsuak ahaztera eramaten gaituzte. Baina guk ez dugu horrela jokatu, inola ere ez,

gaurkoak antzinatek dartzigun bizipenen jarraipena besterik ez direla jakinean gaude eta. Horrela, gaur egungo emaitza arrakastatsuak gure aurrekoei, hainbat gauzen gidari eta aitzin-


dari izan direnei, ustegabeen eskeinitako omenaldi bihurtzen dira.

Hona hemen, bada, gerraren ostean hain famatua izan zen Santageda ospitaletxeko futbolaldeari aurre egiteko prest, kirol-urte honetan ustegabeko omenaldi hori jaso duten kirolari horietako batzuk: **zutik: Joakin Lizarralde, Jose Aspe, Tomas Alzola, Ramon Urreta, Jose Mari Agiriano eta Juan Urreta. Makurtuta: Jesus Etxebarria, Fidel Antxia, Anton Martinez de Agirre, Pablo Ezpeleta eta Jose Mari Izagirre.**

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (kultur etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
 - Asmetan dutenen artean Eberest espedizio-kamiseta bat zozketatuko da.
- Hona hemen aste honetako galdera:
- Non izan zen ARETXAGAZETA oporretan?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Jon Sarasua)



Aurreko lehiaketaren irabazlea OSANE AYASTUY izan da. Zorionak

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tinoa:

AMANTALAZ



Oraingo sukaldaria: Jesus Garzia-Etxabe

Goxua

Osagaiak:
 Bizkotxo lauak.
 Arraultzak.
 Uruna.
 Azukrea.
 Esnegaina (nata).
 Karamelua.

Zelan egin:

Ontzi egoki batean likorez (patxaranez, esate baterako) bustita dauden bizkotxo lauak ipintzen dira. Horren ondoren krema pastelera bat egiten da gainera botatzeko. Hori eginda dagoenean, jasotako esnegaina bota eta karamelu urtua gehitu. Bukatze-ko, ontzia hozkailuan sartu, eta ondo hotzitu denean jan.

POESIA

PRESO BATI

Ene laguna:
 Jakin badakit bakarrik zaudela.
 Baina ez pentsa,
 bakardadea zure lagun bakarra denik.
 ni ere bakarrik nagoen arren,
 badakit beste lagun bat dudala,
 beste lagun paregabe bat,
 beste lagun ahaztezin bat.
 Zu zeu laguna.
 Zu bait zara, bakardade hau
 atsegin bihurtzen duzun bakarra.
 Zu, ene laguna.

MAITASUN AITORMENA

Ni eta zu, biok bateginik.
 Nik zu behar zaitudalako.
 Zuk nire laguntza behar duzulako.
 Ni zu gabe ezer ez naizelako.
 Zuk ni gabe izakerarik ez duzulako.
 Ni zure herriaren maitale naizelako.
 Zu nire herriaren lehen biztanle zarelako.
 Nik maite zaitut,
 Zu **EUSKARA** zarelako.

IÑAKI


KOMIKIA

Mickyta Paul

ZERBAIT NARTZERA
 GERATUKO ZARELA
 DUDARIK EZ DUT



BAI, BAINA HIRUGARREN
 HORI IMBITATZEKO
 OZTOPORIK JARRIKO
 EZ DUZULA KOAN



: ETA HIRUGARREN HAU EZ DA MUGA, MEDIO BAT BALZIK ...

APUNTETAKO

24 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman: " EL PRINCIPE DE LAS MAREAS ".

- Ortzadar aisialdi taldea egun honetan hasiko da. Arratsaldeko 4retan plazan elkartuko dira.

elkartearen irteera: SAIOA.

- Futbol partidua, 1goerregionalak: U.D.A-Soraluze C.F.



- Zaraia zineman: " EL PRINCIPE DE LAS MAREAS ".

25 DOMEKA

- Zaraia mendi taldearen irteera: IRIMO.

- Murrukixo mendi

31 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman: " EL AMANTE ".



1 DOMEKA

- Zaraia zineman: " EL AMANTE " filmea.

- Murrukixo mendi elkartearen irteera: PA-GAZARRI.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

- Zaragozan pisua osatzeko neska euskaldun bat behar dugu. Tnoa: 79 28 71.

- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tnoa: 88 67 23

Lana

- injenieritzako ikasle bat klaseak emateko gertu: matematika, fisika eta kimika. Tfnoa: 79 10 51.

- OHoko klase partikularrik ematen dira. Tnoa: 79 68 18

Salerosketak

- Matrimonio logela bateko altzariak salgai, egoera onean daude. Interesatuek deitu telefono honetara: 79 26 60.

- Garaje bat salgai Lausita kalean. Tnoa: 79 99 86

Orrialde honetako iragarkiak (lan, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

GARAGE
OSKAR
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 31 84

GARAGE
" EDER "

Karrozeria
mekanikoa

IBARRA Z/A
Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

 **EROSKI**

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEETAN
Tfno: 79 16 05

AZKEN BAZTER
KAFE-TEATRO-CLUB



Herriko plaza

ARBULO
URDAITAGIA

Tfnoa: 79 02 24

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

" HERRASTI "
AKEITA ETXEA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

RKLU

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

SAGASTA
ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

Autoservicio
ANGELINES



Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72



Bere Bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

Jantzi Denda

ASENSIO

Mitarte, 12 - Tfnoa: 79 10 72
Aretxabaleta

LEIBAR

ARRAINDEGIA 

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

ARETXAGAZETAko bazkide ez zaretenok leku hauetan aurkituko dituzue ale berriak:

Portazolen

- Zaraia taberna
- Basabe Jatetxea
- Brasileña
- Begi-ondo
- Urretxo
- Oyar
- Don Video
- Valdezate
- Garbitze
- Masaiak Zaraia
- Arenaza Altzariak
- Sasiain
- Iñaki Urdaitegia
- Ibarra estankoa
- Zirt-Zart
- Eroski
- Ohialak

Kalebarrenien

- Nerian
- Feli
- Sagasta
- Gaztetxea
- Arrazola dent.
- Leintz liburud.
- Txikiak
- Express
- Azken Bazter
- Arbulo
- Mikelos
- Briko-lan
- Miren-Zuriñe

Auzoak

- Mitarte-Garai
Jatetxea.

Erdiko Kalean

- Kixkor
- Urkulu
- Angelines
- Martin
- Izotz
- Landeta
- Adagio
- Lasa-Aguilera
- Aretxabaleta Iturg.
- Bengoa Jersetegia
- Altube
- Iriarte
- Zare
- losu
- Arlutz
- Gurea
- Zubia
- Arrizabalaga
- Urbaltz
- Pagaldai
- Zubi-bel
- Josteko
- Leibar
- Asensio
- Burgales
- Mafre
- Haizea
- Errekabarren M.Z.
- Eroski
- Lankide Aureskia
- Kutxa

BAZKIDE FITXA

IZENA -----

HELBIDEA -----

HERRIA -----

TELEFONOA -----

KONTU K. ZENBAKIA -----

KUTXA -----